

143. ALDIZKARIA - 2018ko uztailaren 25a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

DEIERRI

Udal ordenantza, Ugarko hondartzarako sarbideak eta aparkalekua arautzen dituen. Behin betiko onespena

Deierriko Udalak, 2018ko martxoaren 15ean egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ugarko hondartzarako sarbideak eta aparkalekua arautzen dituen ordenantza.

Hasierako onespeneren erabakia 2018ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 5ean, eta jendaurreko epean inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Deierrin, 2018ko ekainaren 19an.–Alkatea, Ramiro Urrea Marcotegui.

UGARKO HONDARTZARAKO SARBIDEAK ETA APARKALEKUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Allozko urtegiaren eremu osoa kudeatzeko erakunde bat onetsi eta sortu aurretik, erakunde horrek bilduko baititu ingurune horretako mugartean titularrenak diren toki entitateak eta egin beharreko jarduketei dagozkien eskumenen titularrenak, lehenik honako hauek arautzen dituen ordenantza onetsi behar da: Ugarko hondartzarako sarbideak eta aparkalekua izateko espazioak, eta Ugarko Kontzejuko mugartean dauden ingurune horretako espazio publikoak.

Bisitariak erabiltzen dituzten eremu horretako ondasun publikoen erabilera arautu behar izatea da horren arrazoia (bide publikoak eta aparkalekuak izateko bereziki prestatutako espazioak, aisialdirako eremuak), izan ere, bisitari asko eta erabilera handia izaten baitituzte. Horrek eragin nabarmena izan dezake Allozko urtegia dagoen ingurunean, zeina ingurumen balio berezia baitu eta dituen ezaugarri bereziak babestu, mantendu eta kontserbatu behar baitira.

Halaber, bateragarritasuna eta harmonia lortu behar dira bide publikoen bi erabilera hauen artean: alde batetik, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jardueretan aritzen diren pertsonak egiten duten erabilera arrunta, eta bestetik, josteta, aisialdi eta jolas jardueren bila bisitariak egiten duten erabilera.

Hortaz, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 121., 179. eta 180. artikuluen eta hauekin bat egiten dutenen edukia kontuan harturik, jabetza publikoko espazio hauen erabilera egokia arautzen da, herritar guztiek erabilera erkide eta orokorra egin dezaten. Nolanahi ere, espazioek erabilera pribatibo eta berezia izan dezakete zenbait kasutan, eta horretarako ezartzen da nahitaezko baimena eskuratu behar dela, dagokion tasa ordainduta (eremu komunetan aparkatzeko tasa, salmenta ibiltarirako espazio publikoa okupatzeko tasa).

Ugarko hondartzan aparkaleku bat egiteko sustapen publikoa lehen ahalegina izan behar da Allozko urtegiko mendebaldeko ertzean sarbideak antolatzeke; horrek geroago ingurune honen guztiaren arauketa orokorra ekarri behar du nahitaez, aurretik aipatutako xedeetarako: azpiegitura hau arautzea horren erabilera ingurune balioekin bateragarria izan dadin, erabiltzaileek egiten dituzten erabilera desberdinak harmonizatzea, eta bizilagun eta bisitariek erabiltzeagatik natura eremu batean egon daitezken arazoak saihestea.

Arauaketa honek ekarriko du jabetza publikoko ondasunen -landabideak eta aparkatzeko eremuak, alegia- gaineko eskumenaren titulartasuna duten erakundeek horiek egokitzeko lan eta zereginak aldeztu aurretik egitea, aurreikusitako erabileretarako xedatzeko.

Horretarako, beharrezkoak diren proiektu teknikoak onetsiko dira, aplikatzeko den hirigintzako eta ingurumeneko araudian eta toki entitateen araudian berariaz xedatutako tramitazioari jarraikiz; gainera, erakunde publiko eskudunek eman beharreko baimenak eskuratuko dira.

Azkenik, horretarako beharrezkoak diren obra zehatzak burutuko dira, araudi berdinari jarraikiz.

Laburbilduz, ordenantza honen onespeneraren bitartez, Ugarko hondartzako sarbideak eta bertan aparkatzeko prestatutako diren eremuak antolatu nahi dira (Deierriko 5. poligonoko 113. lurzatia), bai eta arautu ere beste gai hauek: bideen erabilera, txakurrak edukitzea, suteen prebentzioa, ingurunearen zainketa, eta azkenik, aparkatzeko eta salmenta ibiltarirako ordaindu beharreko tasa.

Horretarako, kontuan harturik ordenantza honek arautzen dituen arloen aniztasuna, eta ikusirik batzuen titularrak Ugarko Kontzejua dela eta beste batzuen Deierriko Udala, ordenantza hau erakunde biek onetsi eta tramitatu beharko dute, aipatzen diren arloen erakunde eskudunak diren aldetik. Nolanahi ere, Deierriko Udalak onetsi ahal izanen du, berak bakarrik, Ugarko Kontzejuak horretarako dagokion eskumenak eskuordetzen badizkio legeriak agintzen dituen tramiteei jarraikiz.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Ordenantza honen xedea da Ugarko hondartza izeneko inguruaren aisialdiko erabilerak arautzea, bai eta eremu horretara sartzeko Kontzejuaren jabetza publikoko ondasunen erabilera egokia arautzea ere (bide publikoak, aparkatzeko eremuak etab.).

Halaber, ordenantza honen xedea da espazio hori modu pribatiboan edo berezian okupatu edo erabili ahal izateko kasu zehatzak finkatzea, horiek arautzea eta dagozkion tasak ezartzea.

2. artikulua. Kontzejuaren edo toki entitatearen eskumena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikuluan xedatuarekin bat, kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoei dagozkie, besteak beste, arlo hauei buruzko eskumenak:

-Beren ondarea administratu eta zaintzea, baita haren aprobetxamendua eta erabilera arautu eta antolatzea ere.

-Mugarteko landabideak kontserbatu, mantendu eta zaintzea, baita Kontzejuaren interesekoak baino ez diren erabilera eta zerbitzu publikoko gainerako ondasunak.

-Bideen garbiketa.

Kontzejuek erabiltzen ahal dituzte udalerriak edo Nafarroako Gobernuak eskuordetzen dizkieten eskumenak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 30. artikulua xedatzen du udalerriak kontzejuetan eskuordetu ahal izanen dituela bere eskumenekoak diren obrak egitea edo zerbitzuak ematea, betiere kontzejuek eskuordetzea onartzen badute eta haien interesei eragiten badiete, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko eta herritarren parte-hartze handiagoa lortzeko.

Aldi berean, artikulua horrek ezartzen du udalak erabiltzen ahalko dituela kontzejuenak baino ez diren eskumenak, horiek eskuordetzan ematen badizkiete.

II. TITULUA

Ugarko hondartzarako sarbidea, gelditzea eta aparkatzea

I. KAPITULUA

Ugarko hondartzarako sarbidea

3. artikulua. Sarbidea.

Ugarko hondartzako aparkalekura sartzeko horretarako seinalatutako sarbideak baizik ez dira erabiliko, eta erabat debekaturik dago landabideetatik sartzea ekainaren 15etik irailaren 15era bitarte. Debeku horretatik salbu daude Deierriko biztanleak.

4. artikulua. Landabideak ixtea.

Aurreko artikuluan ezarritako debekua betetzen dela bermatzeko, Allozko urtegira sartzeko gainontzeko landabideak itxita egonen dira aipatu garaietan, kasuan kasuko seinalizazioa paratuz.

II. KAPITULUA

Gelditzea eta aparkatzea

5. artikulua. Arau orokorrak.

1. Ugarko Kontzejuari dagokio, edo arloaren arabera eskumena duen toki entitateari, ez beste inori, aparkatzearen antolamendua erabilera publikoko bideetan, jabetza pribatukoak izanik ere.

2. Gelditu eta aparkatzean ibilgailuak ez du zirkulazioa tratatuko, ezta arriskurik sortuko ere bidearen gainerako erabiltzaileentzat; zainduko da non uzten den eta begiratuko, gidaria kanpoan delarik, mugitzen has ez dadin.

Aparkatzeko uzten den tokia zoladuran mugaturik dagoenean, markaturiko esparruaren barnean aparkatu beharko da.

Aparkatu beharko da gainerako erabiltzaileei sartu eta ateratzeko maniobrak egiten uzteko, eta gelditzen den espazioa ahalik eta hobekien erabiltzeko moduan.

3. Gelditzea da ibilgailua bi minutu baino gutxiagoan mugitu gabe edukitzea, jendea hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko. Ez da gelditzetzat hartuko zirkulazioaren beharrak direla-eta halabeharrez edo une batez geratzea.

4. Hiriarteko autobusak espresuki baimendutako geralekuetan baizik ez dira geldituko bidaiariak hartu edo uzteko. Geralekuak behar bezala seinalizatuta egonen dira.

5. Aparkatzea da ibilgailu bat bi minutu baino gehiagoan ez mugitzea, betiere zirkulazioak eraginda ez bada.

6. Gidariak ezin izanen dute ibilgailua geldirik edo aparkaturik utzi motorra piztuta dagoela, ibilgailu barnean gelditzen ez badira.

6. artikulua. Autobusak, kamioiak, autokarabanak, atoiak, edukiontziak eta karabanak.

1. Debeku da gehieneko pisu baimendua 5.000 kg baino gehiagokoa duten ibilgailuak aparkatzea Ugarko mugarteko bide guztietan, zamalanak egiteko ez bada eta Ugarko hondartzaren inguruan kokatutako aparkalekuan salbu.

2. Debeku da autobusak aparkatzea Ugarko mugarteko bide guztietan, salbu Ugarko hondartzan aparkalekua izateko eremuan horrelako ibilgailuendako berariaz prestatua dagoen gunean.

3. Debeku da autokarabanak, atoiak, edukiontziak eta erdi-atoiak aparkatzea, salbu Ugarko hondartzan aparkalekua izateko eremuan autobusak ez diren bestelako ibilgailuendako bakarrik eta berariaz prestatutako gunean.

7. artikulua. Aparkatzea. Ordutegia.

Bisitariak Ugarko hondartzan aparkalekua izateko eremuan aparkatuko dituzte ibilgailuak, nahitaez; baimendutako salmenta ibiltarian aritzeko ibilgailuak aparkatzeko berriz, beste gune batzuk ezarriko dira.

Aparkatzeko ordutegia 10:00etatik 21:00etara izanen da; hortik kanpo aparkalekua hutsik gelditu beharko da, garbiketa lanak egin daitezen.

III. KAPITULUA

Seinalizazioa

8. artikulua. Seinaleak jartzea.

Toki entitate eskudunak jarriko ditu ordenantza honetan araututako arlo desberdinei dagozkien kasuan kasuko seinaleak, eta erabakiko du horiek kendu, aldatu, ordeztu, etab. behar diren.

Gai honi buruz aplikatzekoa den araudiaren edukiari jarraikiz aukeratu eta jarriko ditu seinaleak toki entitate eskudunak.

Ordenantza honen xede diren bideen erabiltzaile guztiak beharturik daude zirkulazioko seinaleei kasu egitera eta beren portaera egokitzera beraiek doazen bideetan aurkitzen dituzten erregelamenduzko seinaleen mezuaren arabera.

9. artikulua. Aplikazioa.

Ugarko sarreretan jarritako seinaleek, banaka edo karteletan bildurik, Ugarko hondartzarako sarbidea eta aparkalekua arautuko dituzte berariaz.

IV. KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

1. ATALA

Arau-haustek

10. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Ordenantza honen aurkako egiteak eta ez egiteak arau-hauste administratibotzat joko dira eta bertan jasotakoaren arabera zehatuak izanen dira.

2. Kontzejuaren edo toki entitatearen eskumenekoak ez diren arau-hausteak administrazio eskudunaren esku jarriko dira.

11. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Arau-hauste arina izanen da ordenantza honetan xedatua ez betetzea, baldin eta trafikoari eta bide segurtasunari buruzko araudian edo aplikatzekoa den beste araudi batean arau-hauste larriaren edo oso larriaren kalifikazioa ez badu.

Zehazki, arau-hauste arina izanen da ordenantza honetan araututakoaren arabera aparkatzeko ezarritako leku zehatzetatik kanpo aparkatzea.

Edozein kasutan, arau-hauste larria izanen da Ugarko hondartzarako sarbideari buruz ordenantza honetan jasotako xedapenak ez betetzea (3. artikulua), Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 76c) artikuluan xedatuarekin bat (2015eko 261. Estatuko Aldizkari Ofiziala, urriaren 31koa).

2. ATALA

Zehapenak

12. artikulua. Motak.

1. Arau-hauste arinak 100 eurora bitarteko isunekin zehatuko dira; larriak, berriz, 200 euroko isunekin.

III. TITULUA

Merkataritza ez egonkorra

I. KAPITULUA

13. artikulua. Merkataritza ez egonkorra.

Ordenantza honi dagokionez eta uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean ezarritakoarekin bat, merkataritza ez egonkorra da merkatariek ohiko saltoki egonkorretatik kanpo, instalazio desmuntagarrietan, aire zabalean edo denda-ibilgailuetan egiten dutena.

14. artikulua. Motak.

Merkataritza ez egonkorraren esparruko merkataritza jardueratzat hauek har daitezke:

1. Noizbehinkako merkataritza, salmenta kalez kale egiten denean.

2. Merkataritza ibiltaria denda-ibilgailuetan.

15. artikulua. Debekatutako merkataritza.

Halako produktu baten araudiak haren salmenta debekatzen badu, ez da inolaz ere hura saltzeko baimenik emanen.

Elikagaien salmenta baimentzen ahalko da, sektoreko legediak produktu mota bakoitzerako ezartzen dituen osasun eta higiene baldintzak betetzen direnean soilik. Elikagaien salmenta ibiltarirako instalazioek produktua arautzen duen araudian eta elikagaien higiene baldintzak arautzen dituen araudian ezartzen diren osasun baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Baimenduriko produktua janari prestatutzat jotzen bada, jarduera gauzatu baino lehen, lizentziaren titularrak ezarpenaren berri eman beharko die osasun publikoko zerbitzu ofizialei, establezimendua ikuska dezaten.

16. artikulua. Merkatarien betebeharrak.

1. Merkatari ez egonkorrek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Alta emana izatea Ekonomia-jardueren gaineko zergan edo Lizentzia Fiskalean, dagozkien epigrafeetan.

b) Kasuan kasuko Ogasun Publikoarekiko betebeharrak egunean izatea (tokikoa, Foru Komunitatekoa edo Estatukoa).

c) Alta emana izatea Gizarte Segurantzari dagokion araubidean, eta behar diren kuotak ordainduta izatea.

d) Ugarko Kontzejuak edo toki entitate eskudunak emandako berariazko baimena izatea, saltokian ikusteko moduan agerian egonen dena.

e) Erregelamendu tekniko-sanitarioek eta gainerako xedapen aplikagarriek merkaturatzen diren produktuen gainean eskatzen dituzten baldintzak betetzea.

f) Atzerritarren kasuan, bizileku-baimena eta lanean beren kontura aritzeko baimena izatea, indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

g) Salgai diren produktuek fabrikazio edo produktiotik dituzten ezkutuko akatsei buruzko inguruabarrak kontsumitzaileei argi ikusteko moduko kartelen bidez adieraztea.

h) Behar adinako dokumentazioa izatea, salgai jarritako produktuen jatorrizko marka eta jatorria egiaztatzen dituena.

i) Salgaiak gizakiaren kontsumorako elikagaiak baldin badira, elikagaiak manipulatuak dituzten pertsonen dagokien ziurtagiria eduki beharko dute.

j) Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, baimendutako instalazioetan gerta daitezkeen erruzko edo ustekabeko arrazoi edo ezbeharrak direla eta, hirugarrenek izan dezaketen kaltea estaliko duena.

k) Saltokia baimenean adierazitako aparkatzeko leku zehatzean jarri beharko da.

2. Interesa duten merkatariei baimena emanen zaie dagokien tasa behin diruzaintzan ordainduta.

Tasa hiru hilabete behin ordainduko da, eta baimenean alta zein baja gertatzen bada, hiruhilekoaren zati proportzionala kitatuko da, asteka zatituz.

Pertsona bakoitzak salmenta baimen bakarra eskuratzen ahalko du, eta aipatu baimenak pertsonalak eta besterenezinak izanen dira. Gehienez ere urtebeteko indarra izanen dute.

Aipatu baimenen jabeek esleitutako postua garbi izatera behartuta daude (saltokia jartzeko eman zaion leku zehatza) eta egunero garbitzera salmenta lanaldia bukatutakoan.

II. KAPITULUA

Merkataritza ibiltaria denda-ibilgailuetan

17. artikulua. Eskumena.

Kontzejuko edo eskumena duen toki entitateko buruak emanen du baimena denda-ibilgailuan merkataritzan aritzeko, merkataria eskaera egin ondoren, 16. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztuz.

Horretarako eta beharrezkoak diren seinaleak jarrita, salmenta ibiltarian aritzeko eta denda-ibilgailuak jartzeko egokiak diren leku berezi eta zehatzak seinalatuko dira, eta, behar izanez gero, zenbakituko.

Saltzen diren produktuak 15. artikuluan aipatu direnetakoak badira, baimena izan dezaketenak alegia, baimen hori eman baino lehen merkataria osasun agintari eskudunei frogatu beharko die produktuak garraiatu eta hotzean edukitzeko instalazio egokiak dituela.

Baimenak salmenta ordutegia eta aparkatzeko lekua zehaztu beharko ditu; leku hori baimenean berariaz emandakoa izan beharko da nahitaez, Ugarko hondartzan aparkatzeko prestatu den lekutik gertu, eta inola ere ez ur-ibilgailuaren zortasun eremuan, Ebroko Ur Konfederazioaren eskumenekoa baita.

18. artikulua. Betebeharrak.

Denda-ibilgailuko merkatariek une oro bete beharko dituzte 16. artikuluan ezarritako baldintzak.

III. KAPITULUA

Arau-hauste eta zehapenak

19. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Baimenean ezarritako baldintzetakoren bat ez betetzea.
- b) 13/1989 Foru Legearen aginduak edo ordenantza honetakoak ez betetzea, arau-hausteen beste bi kategorietan sailkatutakoak izan ezik.

20. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Arau-hauste arinak berriro egitea. Hiru arau-hauste arinek arau-hauste larri bat egiten dute.
- b) Merkataritzako gaiak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak ez betetzea.
- c) Eskumena duen toki entitateko agintari, funtzionario edo agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean argibideak ez ematea edo men ez egitea, baita argibide okerrak edo gezurrezko dokumentazioa ematea ere.

21. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- a) Arau-hauste larriak berriro egitea.
- b) Toki entitatearen baimenik gabe aritzea.
- c) Eskumena duen toki entitateko agintari, funtzionario edo agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean aurre egitea, hertsatzea edo mehatxatzea.

22. artikulua. Zehapenak.

Arau-hauste arinak ohartarazpenez edo 90,15 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste larriak 90,16 eurotik 150,25 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste oso larriak 150,26 eurotik 300,51 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira eta, zein den kasua, saltzeko baimena aldi baterako kenduko da, edo baliorik gabe utziko.

V. KAPITULUA

Alderdi fiskalak

23. artikulua. Tasa.

III. tituluko I. eta II. kapituluetan ezarritako jarduerak egiteko beharrezkoa izanen da dagokion lizentzia eskuratzea, eskumena duen toki entitateko buruak eman beharrekoa.

Ordenantza honetan aipatu lizentzietatik edozein eskuratzea zerga-egitatea da, eta dagokion tasa ordaindu beharko da.

Edozein lizentzia eskatu eta eskuratzen duen merkataria da tasaren subjektu pasiboa.

Tasaren zenbatekoa ordenantza honen eranskinean zehaztutakoa da.

V. TITULUA

Txakurak eta lagun egiteko beste animaliak edukitzea

I. KAPITULUA

Txakurren eta lagun egiteko beste animalien jabeen betebeharrak

24. artikulua. Txakurak eta lagun egiteko beste animaliak.

Ugarko hondartzako eta aparkalekuko eremuan, leku komunetan eta sarbidean dabilzan txakurrek behar bezala identifikatuta eta txertatuta egon beharko dute, eta horien erantzuleek katez edo uhalez eraman beharko dituzte.

Gainera, 50/1999 Legeak xedatutakoaren arabera arriskutsuak gerta daitezkeen animaliei nahitaez muturrekoa jarri beharko zaie eta horiei buruzko araudia bete.

II. KAPITULUA

Arau-hauste eta zehapenak

25. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Aurreko artikuluan aipatutako eremu eta lekuetan txakurak kate edo uhalik gabe eramatea.

b) Lagun egiteko animalia gerozkiak bildu gabe uztea eremu publikoan.

26. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

Arau-hauste arinetan berrerortzea.

27. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste larrietan berrerortzea.

28. artikulua. Zehapenak.

Arau-hauste arinak 60tik 150 eurora bitarteko isunekin zehatuko dira; larriak 151tik 600 eurora bitartekoekin, eta oso larriak 601etik 3.000 eurora bitartekoekin.

VI. TITULUA

Espresuki debekatutako jarduerak

I. KAPITULUA

Jarduera debekatuak

29. artikulua. Kanpaldi librea.

Espresuki debeku da kanpaldi librea Ugarko Kontzejuko mugarte guztian, eta bereziki Allozko urtegiaren ingurunean, horretarako espresuki baimendutako lekuetatik kanpo.

Eskumena duen toki entitateak, egokitzen jotzen badu eta horretarako inguruabarrak gertatzen badira, kanpatzea baimenduta egonen den eremu bat zehazten ahal du, betiere aplikatzekoa den ingurumen arloko araudiarekin bat eta gai horretan eskumena duten erakundeen baimenak eskuratu ondoren.

Kanpaldi librea da lege eta erregelamenduek arautzen dituzten turismoko kanpalekuetatik kanpora hauetariko bat edo gehiago paratzea: aterpe mugikorra, karabana, autokarabana, kanpadenda edo aise garraiatu eta desmuntatzen den gisako elementua. Kanpatzeko elementuak dira aise garraiatzen direnak eta zimendurik ez dutenak.

Edozein kasutan, debeku da gaua pasatzea eta mahaiak, aulkiak eta gisakoak paratzea Kontzejuko aparkalekuan, baita frontoian, piknikgunean eta haurrentako parkean ere.

30. artikulua. Suak, barbakoak eta gisakoak.

Debeku da suak, sutzarrak, barbakoak eta gisako jarduerak egitea Ugarko Kontzejuaren mugarte osoan eta bereziki Allozko urtegiaren ingurunean, horretarako espresuki baimendutako tokietatik kanpo.

31. artikulua. Ingurunea garbitu eta mantentzea.

Guztiz debeku da lurrera botatzea paperak, plastikoak, botilak, janari hondarrak eta bestelako hondakin organiko edo inorganikoak; hondakinak sortzen dituzten

pertsonek jaso eta gorde beharko dituzte, edo, bestela, paperontzietan, edukiontzietan eta espresuki horretarako diren lekuetan utzi.

II. KAPITULUA

Arau-hauste eta zehapenak

32. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- a) Ugarko Kontzejuaren mugartean kanpatzea, horretarako espresuki baimendutako tokietatik kanpo.
- b) Ugarko Kontzejuaren mugarteko aparkalekuetan edo beste edozein lekutan gaua pasatzea.
- c) Aparkalekuetarako eremuetan aulkiak, mahaiak edo antzekoak paratzea.
- d) Paperak, plastikoak, botilak, janari hondarrak eta bestelako hondakin organiko edo inorganikoak lurrera botatzea, paperontzi, edukiontzi eta espresuki horretarako diren lekuetatik kanpo.

33. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- a) Suak, sutzarrak, barbakoak eta gisako jarduerak egitea kontzeju osoaren mugartean, horretarako espresuki baimendutako tokietatik kanpo.
- b) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

34. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

Arau-hauste larrietan berrerortzea.

35. artikulua. Zehapenak.

Arau-hauste arinak 60tik 150 eurora bitarteko isunekin zehatuko dira; larriak 151tik 600 eurora bitartekoekin, eta oso larriak 601etik 3.000 eurora bitartekoekin.

VII. TITULUA

Zehapen prozedura

36. artikulua. Prozedura.

Prozeduraren instrukzioa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera egingen da.

37. artikulua. Berehalako ordainketa.

Salaketa jakinarazi ondoko hogeit hamar egun naturalean %50 merkeago ordaintzen ahalko dira ordenantza honetako arau-hausteen ondoriozko isunak. Isuna %50 merkeago ordaintzen bada, uko egingo zaio alegaziorik aurkezteari eta ebazpen espresa eman beharrik gabe buka daiteke prozedura. Nolanahi ere, gainerako kasuetan dagozkion errekurtsoak aurkez daitezke.

38. artikulua. Eskumena.

Eskumena duen toki entitateko buruari dagokio ordenantza honetan jasotako arau-haustea zehatzea, edo, hala izanez gero, horretarako beharrezkoak diren eskumenak eskuordetzan eman zaizkion entitateari; horrek organo eskudun zehatzaileari antzematen diren arau-hausteen berri emateko ahalmena izanen du. Hori guztia, entitateko langileei ordenantza honetan jasotakoak antolatze eta betetzen direla kontrolatzeko ematen zaien ahalmenaren kaltetan izan gabe.

Iragarkiaren kodea: L1808134